


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

301n. zenbakia
abendua 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



LIEBANA:

ELEIZA ERROMANIKOA

PIASKA'N ERREGE-ETXEKO ANDRA MARI

ERAKUNDEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZORDEA (2004-01-29)

Lendakaria: Olazar eta Uribe'tar Martin
Lendakari-ordea: Barroeta eta Amorroto'tar Klaudio.
Kudeatzaillea: Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele.
Idazkaria: Atutxa ta Agirre'tar Paul
Maikoak: Egurrola'tar Iñaki
Solozabal'dar Paulin
Malaxetxebarria'tar Jon
Ormaetxe'tar Emilio

GURA DOZU IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?


- Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:
- I.- Apostoluen eta martirien denporako Eliza.
- II.- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eleiza.
- III.- San Ignazio'ren denporako Eliza. (Ez dago).
- IV.- Denpora barrietako Eliza.
- V.- Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.- Denpora auetako Eliza.
- VII.- Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.- Euskal kristautasunaren sendokuntza.
- [X.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.
Liburu bakoitxa 500 orrialde inguru dira.
Ordaiña: Bakoitxa sei euro.
Baiña irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko eta irakurtekotan.
- Eskatu:** Martin Olazar
XXIII Jon Z. enparantza 2.
48100 Mungia - Bizkaia
Tel: 94 674 01 23

ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ALDI ZKARIA

Egilea: "Euskerazaleak"
Kudeatzaillea: Fernandez'tar Karmele
Idazkola: "Euskerazaleak"
Zuzendaria: Olazar tar Martin (Euskerazaintzakoa)
Idazleak: Atutxa'tar Paul (Euskerazaintzakoa)
Aldalur'tar Justiñe
Egaña'tar Gotzon
Solozabal'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)
Martiartu'tar Iñaki
Latiegi tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ



ALDIKARI ONEK
BIZKAIKO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

INTERNET'era SARTU GARA! WEW ORRIA DAUKAGU!!!

Lan aundia izan da, baiña egin al izan da laguntzaille trebeak aurkitu doguzalako, Ana Uriarte buru dala eta Bizkai'ko Foru-Aldundiaren Kultura-Sailleko euskerearen sustapenerako erakundeak esku zabalez lagundu dauskulako.

Irakurleai lenengo agertu bear dautseguna WEW orri onetara sartzeko bidea da:

W W W.euskerazaleak.biz

Zer sartu dogun:

Orri orretara sartu doguz ainbat lan, baiña geiago sartzeko ustea daukagu. Oneik dira gaur arte sartu doguzanak: 1988n. urtetik 3004n. 'era arte diran ZER aldizkariaren zenbaki guztiak osorik, Gamiz liburua osorik, Euskerazaintza aldizkari batzuk eta Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia'ren "Liburu Gorria".

Zenbat etorri diran:

Pozez ikusi al izan dogu gure orri onek irakurleek izan dauzala. Asi baiño ez gara egin eta 441 ikustaldi izan ditu.

Madrid'eko Legan s errian daukagun talde batek be sarrera eskatu dausku eta emon be bai.

Asko poztuten gaitu ainbestean onartuak izateak.

Gure alegiña:

Egindako lanak, izan doguzan onartzeak eta laguntzak gure erantzuna eskatzen dabe, lana ondo egitea, gai arduragarriak erabiltea eta orain askoz geiago diran irakurleai bearrezko edo arduragarri jakezan lanak eskintzea.

Alegin au eskatzen dautsegu gure 70 idazleai eta geure buruari..

Zer lortuko dogu?

Ba-daukagu itxaropena. Gure lana ez da izango atpen-ekoa.

Ain baztertuta daukagun bizkaiera indartuko dogu.

Baztertuta! Bai! Baztertuta irratian eta telebistan, iñoz be entzuten ez dala. Baztertuta irarkolan:geureak izan ezik, baste liburururik, aldizkaririk ez ezer ez da agertzen bizkareraz. Eta sarritan bizkaitarrak diran idazleak be lotsatu egiten dira bizkaieraz idaztean. Ikastoletan eta eskoletan ez da irakasten Bizkai'ko gure euskerea, asieratik batua sartzen jake gure ume bizkaitarrak. Eta gure etxe ta kaleetan geroago ta gitxiago berba egiten da euskeraz.

Bizkaerearen aldeko taldeak:

Ba-dagoz talde batzuk bizkaerearen alde agertzen diranak.

Bear ba'da, idatzi egiten ez daben lez, argien datorrena Bizkai -

Irratia da. Eta idazten dabenen artean Mendebalde daukagu, baiña bere zuzendariak idatzi dauan Maixu-Lan nagusia (Tesis) ez dau idatzi bizkaieraz. Labayru daukagu bizkaierearen alde sendo dagoana eta ez dauka gugandik urrintzen dauanik ezer, "H" a erabiltea baiño. Eta antzera esan bear Lauaxeta Ikastoleari buruz.

Une onetan ez noa "H"aren arzoa aztertzen, datorren illean Euskerazaleak eratzten daben astean egingo dot itzaldi bai gai oneri buruz eta ZER onetan agetuko da. Dana dala, ia dana dago esanda.

Galduko ete da gure bizkaiera ederra!

Baten batek esana da euskerea aurrera aterateko beso-bakar izan bear ba'dau, oba dala eukerea gaizkatu beso bat galdu arren.

Baiña ez! Ez dogu gura euskera beso-bakarrik! Ez dogu nai euskerea bizkaiera barik. Nork gura ete dau bizkaiera galtzea?

Gure lana zabaltzeko bide eder bat aurkitu dogu eta bizkaiera bizirik ateratea lortuko dala uste dogu. Izango al doguz laguntzaille, Euskerazaintza eta bizkaitarrak diran idazleak eta erakundeak!

OLAZAR'tar Martin'ek.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ERRIALDE GUZTIAK

1.- LENENGO GIZONAK

Bibliak Adan eta Eba agertzen dauz lenengo gizon-emakume lez, baiña ori erlejiño-giroko asmakizuna da. Olakoak ez ziran lenengo gizonak.

500.000 edo milloi bat urte inguru dirala munduan lenengo gizona agertu zan. Ori da oraintsukoak diran Atapuerka'ko billaketak diñoskuena.

Lenengo gizonen bizi-leku ez ziran etxeak, zugatz-gaiñeak eta arkaitz-arteak baiño. Toki orreitan aurkitzen eban giro txarrari erantzuteko eta gau-pizti gesetuai iges egiteko babesak.

Euren janariak basa-frutuak, arraiñak eta eizan arrapatzen ebezan piztiak ziran. Ez ekian landarak etxean ereiten eta ez piztiak etxerutzen be.

Gizonaren inguruan ugari ebiltzazan oian eta larreetan katamotzak, artz nagiak, pizti-zar aundiak.

Errukarria gure antxiñako gizontxua, anbeste etsairen artean, egurra ta arria baiño beste izillurik ez eukala. Eskuak eukazan trebe, beste piztiak ez eukena.

Inguruan olako etsaiak ugari ikusten ebazenean, bere gordelekuan egon bear geldi, eizan ekitera bere goseak bultzatzen ebala. Geroago, leiza-barruetan agertu dauskuz eizan izan ebazan arriskuak eta zeintzuk ziran arrapatzen ebazan piztiak.

Ez ziran asko-asko orduan bizi ziran gizon-emakumeak, gaurko erri txiki baten bizi garan beste-inguru.

Sarritan, goseak eraginda, ibillaldi luzeak egin bear izaten ebezan, janari-billa, basorik baso, bildurrez, lo egiteko zugatz-adarretara igoten ebela. Eta zenbat urte orrelan, gizajoak!

Egia esan, ez-jakiñak ziran-eta, obeto bizi izateko ametsik be ez eben eukiko.

Baiña, urteak joan, urteak etorri, euren umeak andra eta gizon biurtu ziran.

Laster ikasi eben oneik eizan egiteko era barri bat, arriak jaurtitea eta geroago pizti-bideetan zulo aundiak egin eta an piztiak iltea.

Sendiak aurrera joiazan: eizatu, jan, jantzi eta bearezkoak ziran gauzak egiten guraso zarrak irakasten utsela.

Egunerik egunera, zori txar aundi bat etorri jaken: Otz ikaragarria, inguru guztia izoztu eban otza. Orduan egoaldera, lurralde epelagoetara, abiatu ziran, baiña banaka batzuk ez eben itzi nai izan maite ebe euren bizilekua eta jokabide barriak artzera beartuta ikusi ebezan euren buruak. Al zan lekuetan aitz-zuloetara sartu ziran eta aitzik ez egoan lurraldeetan txabolagintza asi eben eta orretarako buztia, eguna, orriak eta abar artzen ebezan.

Or daukaguz ba, egoaldera joan ez ziranak, batzuk aitz-zuloetan eta beste batzuk zugatz-adarretan euren abiak eginda. Ikusten da "gizona, otsarapean be gizon".

Baiña beste asmakizun arrigarri bat egin eban gizonak: Piztiak etxerutzen eta zugatz onurakorren aziak etxe-inguruan ereiten ikasi eban. Orixe da gizonak bere edesti osoan egin dauan iraultzarik aundiena: Etxeko abereak eta baratzak izatea.

Eta dana gordiñik jan? Sua nondik asrnatu okelea naiz barazkiak janari egokigo biurtzeko?

Bear ba'da, tximistaren batek basoa erre ebanean ikusiko eban sua zer dan eta zertarako izan zeitekean. Baiña su ori amatau barik zaindu bear! Konturatu zan arri batzuk laster su-txinparta ateraten ebela eta orrelan sua biztuteko era bat aurkitu eban, baita egur bi alkarragaz i urtzita beroa sortzen zala eta orrelan sua lortu leikela. Mezedo audia izan zan ori gizonarentzat!

Laster ikusi eban aragia surtan erreta gozoagoa eta egozkorragoa zala. Ikasi eban eltzeak edo lapikoak egiten be eta barazkiak egozita gozoagoak zirala konturatu zan. Asi da sukaldaritza arrigarria munduan!

Krisailluak egiten be ikasi eben, eta zelako poza gau luzeetan argi ederra! beste batzuk lurraren barruan burdiña gaur deritxoguna eukela eta suaz ateratzen zala. Zenbat gauza atera ebezan ortik: izkillu obeak, plater zabalak, katillu sakonak. Eta egurra ebagiteko burdin zorrotza be asmau eben. Zenbat lanabes egiteko erea!

Aurrerapen oneikaz, alkar-bizitza be lortu eben asti geiago eukelako eizan ibilli barik eta basoak janari-billa arakatu barik. Eta alkar-bizitzak izkuntza aberastu eta ugaritu egin eban.

Akarte onek buru bat eskatzen eban eta euren arteko zarrena eta argiena aukeratu ebe orretarako, "senior/señor" edo agurea.

Illuntze baten, sua biztuta egozala, non edo an, doiñu bat entzun zan: Enbor ustu baten edo azurrezko odi baten zuloak eginda, doiñua atera eben eta doiñuagaz anak mobitzera jokerea, dantza.

Laster ikasi eban, orratza eskuan artuta, euna egiten eta buztiañagaz estaltzen. Orrelan edertzen ebezan euren naruzko jantziak.

Millak urteak bear izan ziran asmakizun oneik bideartzeko, eta alkar-bizitza oitura biurtu zanean, edestiarren aldi barri bat urreratu zan, errien aldia, orain bost milla-bat urte. Orra or urrengo idaz-lanaren gaia!

**MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEDIA'tik
OLAZAR'tar MARTIN'ek moldatua**

ERBESTETIKO BIDEZ BIDE IBILTZAILLE ZARRAK EUZKADI-ZEAR

"EL BATUAK" ;;EZ DUALA BALIO!!! (JARRAIPENA)

Baditut gai ortaz Dunixi Oñatibia'rekin idatzitako liburu bi: "Euskaltzaindia, El Batua, y la Muerte del Euskera", bat; eta bestea, ori baiño leenagokoa, On Manuel Lekuona'ren eskariari erantzunez idatzia, eta argitaratu zanean arek onartua: "Euskaltzaindiari Epaiketa". Titulo ori On Manuel'ek berak asmatua du.

Ba, bi liburu oietan aurkituko dituzu, bata bestearen atzetik, "El Batua" k bertsolaritza bezalako izpiritu edo gogozko ekin-tzetarako ez duala balio aldarrikatuz, Koldo Mitxelenak eta zori gaiztoko izkera orren beste sortzailleek esandako guzia. i"El Batua" **administrazioarako bakarrik** balio omen du!!!

– "Ez nago zurekin bat, Bixente, --esango dit agian irakur-leren batek--: "El batua" **administrazioarako bakarrik sortu ba'zart** ;:zergaitik dago gaur zker a idazkera gu:ti az, jabeturik? Zuok, Euskerazaintzakook bakm-r-ik idazten duz.ute erriko euskeraz."

– Bai. Egia da guk bakarrik idazten dugula erriko euskeraz, eta ori da gure baitan sentitzen dugun pozaren iturria. Ez da egia "el batua" itzegiten dalako ori. "El batua" ez da iñon itzegiten. Erriak bere Euskeraz itzegiten jarraitzen du. Eta orrek oraingoa egiten du gure poza, zazpi probintzietan erri euskaldun osoa gurekin dagoalerean adigarria bait da! Idatzi, bai; Euskerazaintzakoon artean izan ezik "el batua" bakarrik erabiltzen da edozein gaiez idazteko. Zergaitik? Begira: Politik'era ezker-tiar marxikoi txoro baten eragiñak sortu zuan "el batua", Franko'ren diktadurakoan, eta politik'era berorren eragiñak zabaldua du Euskalerrri guztira, indarrez, Franko'ren era berdiñak erabiliz.

AGOZ-AGOZKO KULTURAREN IRU ZITU. Badu, baitare, beste aberastasan bat agoz-agozko kulturadunak: bere kultura orren egillea izatearen ondorioa. Berak, gizartean erne ibiliz, bere lanez jaso bait ditu bere adimenean, bere naimenean eta bere biotzean daraman kultur orren atal guztiak. Enetasun eta etenik gabeko ardura orrek, buru-lanetarako, adibidez bertsolaritzarako, askoz zorrotzagoa biurtu dio adimena; askoz zabalagoa, sendoagoa ta azkarragoa oroimena eta askoz argi-agoa ta ariñagoa irudimena.

BERTSOLARI ZARREN YAYOTASUN ARRIGARRIA. Ori kontuan artuz ez zaigu ain arrigarri gertatuko bertsolari aiek, zortziko nagusiaren lau puntuak bestek emanda, bereala, itxuraz beintzat pentsatzeko ere astirik arteke, besterengandik artutako lau puntu oiekin zortziko nagusi bat nola ain azkar, ain errez eta ain egoki eratzen zuten ikustea.

Bein Zepai'ri, (au neri kontatu zidan Baleriano Mokoroa Tolosa'ko liburu saltzaillea ez zan oroitzen non) baiñan onoko lau puntuok aurkeztu omen zizkion bertso-jai baten zuzendar-riak: "Beldurrez, Parrez, Negarrez, Errez", eta arek bere lana bukatu bezain laister Zepai'k onela borobildu omen zuan eskatzen zitzaion zortziko nagusia, une batez puntuak jarri zizkionari eta, aurretik mutilzarren eta neskararren aurka abestu zuan bertsolariari erantzunez:

Nere denboran ez naiz egondu kantatutzeko BILDURREZ.
Gaurko bertso au aditutzean jarriko zerate PARREZ:

Etxera joan da andrea erritan ume txikiak NEGARREZ...
Gauz oiek danak pentsatu eta etz'eok ezkontzen ERREZ'!

Yayotasun bera ager oi zuten gure bertsolariet, punttu-jar-tzailleak gaia eta puntu bat bakarrik ematen zienean. Aurreneko adibide au Tolosan Juan Garmendia Larrañaga antropologi-lariaren tertuliko kide bateri entzuna dut: Zizurkil, 1960. Dago-nillak 16. Erriko Pestak. Plaza Nagusian. Euskalerrri Españi'tiko inmigrazioa ugariki zetorren garaia. Onoko puntu au eman zitzaion Lazkao Txiki'ri: "Extremadura dira Kazeres Badajoz".

Eta bereala, tximistaren azkartasunarekin, Lazkoa Txiki'k:

i "Extremadura dira
Kazeres Badajoz?
Ez dakit joango diran;
majiñat badatoz.

Danok senide gera,
ez nabil gorrotoz.
Etorri ez ba'lira,
obe gendun askoz".

Bertso sakona, benetan, ori. Oartzeko, bertsolariak XXIII Yon Aitasantuaren "Pacem in Terris" entziklikako azken atalaren laburpena egin zuan.

Ona, Aitasantuaren atal ortako gaiak:

– "Migrazioa, eragozi eziña".
– "Migrazioarako eskubidea".
– "Migrazioa, bai datoztenentzat, bai artzen dituztenentzat, arazo-iturria".

Yayotasun berdiña agertzen zuten gure bertsolariet bertso ariñak, bertso jostalariak, dotore ta azkar eratzeke:

Ondorengo au, badira urte batzuk Eibar'ko batzokian entzun nuala. Bertsolaria, Uztapide. Lekua, Donosti'ko Anoeta. Puntu-jartzaillea On Manuel Lekuona bera. Alako batean, gure itxasal-deko trenaren zaratak entzunda onoko puntua jarri omn zion Uztapide'ri:

"i Gure kostako trenak
zenbat kurpil ditu?"

Eta Uztapide k bat-batean:

"Orrelako galderik
nik ez dut aditu.
Jakitea nai dunak
azpira begitu.
ipiñitako danak
an izango ditu".

Bertso ori badakar Aita Zabala jesuitak Zepai'ri eskai i zion liuruan, bai an ez bestek emandako puntuekin egindakoa bezala.

EUSKERA

IRU EUSKERAK.- Gure denbora ontako bertsolari berriei antziñako aien erreztasun, edertasun, eta bikaintasun ortara iristeko aolku batzuk emango nizkieke nik:

– "El batua" baztarrean utzita hizkaitarrek BIZKAIERAZ eta besteek GIPUZKERAZ, ots; ERDIKO EUSKERAZ bertso-gintzan asteko.

Toponimiak eta euskal-erlijio zarrak erakusten digutenez, ez da sekulan EUSKERA BATURIK izan.

Gure egunotako Euskera au, beti. irukoitza izan da: Sortaldekoa, Erdikoa. Sarkaldekoa.

– **Sortaldekoa**, iIII-zorian azkenekoetan dagoan euskera; garai batean auñamendiaren bi aldeetatik Lurrart'Itxasoraño itzegiten zana. Orain Zuberora'n bakarrik, eta an ere oso era larrian bizi dana. i Iristen ote dira lau millara euskera maitagarri ori itzegiteko gai diranak?. III-ben•iak dira euskera orren besoak ziran Erronkari'koa eta Salazar'koa. Ez dira lau urte, azkeneko Aran ontan euskera ori itzegiten zuan azkeneko giza-kumea, andre bat ill dala. Kontuz, oraingo gure bertsolari gazteok. Ez dezaiola bizirik jarraitzen digun euskerari orixe bera gertatu!

– **Sarkaldekoa**. Gure egunotako BIZKAIERA. Au ere askoz lurralde zabalagoan mintzatu zana: Araba'ko lurralderik geienetan eta Autrigoitarren leiñu edo tribu zabala osoan, Oka Mendien egoaldeko maldan ia-ia orduan garrantzirik gabeko erri koxkorra zan Burgos'en gain-gaiñeraño.

– **Erdikoa**, ots: beste bi oien artekoa: Gipuzkoa'n, Naparro osoan eta Laburdi'n mintza oi dana. Euskaldunen artean GIPUZKERA esan oi zaio, XVIII mendeaz gero birjaiotza edo euskal-errenazimentuaren sortzaille eta edertzaille izan dalako, eta, –erdikoa izatearen bentaja–. beste euskaldunek errezen ulertzen dutena ere dalako. Euskera guztiak dira era berdiñean politak. Orregaitik. nik ez dakit zergaitik, baiñan inguruko euskaldun guztiak eraspén bereizia izan diote, eta diote, erdiko euskera orri. Oraindik, danetan politena bera dala esango dizute.

Bera da beintzat erri Euskaldunaren maillan itzeñena ta indartsuena "el batua"ren zalaparta guztia lege otzetik dator- kion ofizialkerizko intxaurrik gabeko intxaur-otsa bait da.

Erdiko Euskera! Gipuzkera zabala! Ori da Betiko Euskera Millaka Urtez Zaarraren sustrai sendoa. Ori bizi dan bitartean, biziko dira, orren kerizpean beste Euskerak ere, eta bait ildakoak berbiztu ere ortan saiatuko ba'giña, baiñan ori ilko ba'litz berealaxe ilko lirake beste guztiak.

EUSKERAREN BATASUN BAKARRA.- Zugur ibilli zan beraz gure ikuntzalaririk jakintsuena, Azkue bizkaitarra. Euskeraren batasunera iristeko biderik egokiena bezala bere GIPUZKERA OSOTUA aurkeztu zuanean, gure idazle aundi aiek danak, eta, balio geiagokoa dana, Euskaldun guztiak ago batez pozik artu zutena!

Nere ustez, Euskeraren batasuna. euskaldun bakoitzak bere euskera ederki ta osoki ezagutzea da, besterik gabe beste euskerak errez ulertuko bait ditu. Batasuna, ez bait da izkuntza guzti-entzat berdirña. Latiñaren. eta Gaztelera bere alabaren batasuna "Monoforme" da, ots, "Eraketa Batekoa". Elenera edo Greziera klasikoarena. ordea. "Pluriforme" zan: "Eraketa Askokoa". Orrelakoa da Euskeraren Batasuna ere: Bat eta irukoitza. Irutasuna Deunaren antzekoa: Jainko bat. iru Pertsona. Euskera ere, bat! baiñan Euskera Bakar orren eraketak, IRU.

Entzun gaurko bertsolari gazteok: Bedi au nere azkeneko aolkua: Euskaldunen artean, XVII mendeaz gero, beti izan da batasunerako joera.

Joera orren barruan orain arte sortu dan egiazko bide egoki bakarra, Azkue bizkaitarraren **Gipuzkera Osotua** dugu. Esan dut len euskeraren nolakotasuna "**Irutan bat izatea**" dala. Euskerak ez duala bere berezko beste batasunik. beste batasun oro, Euskerarentzat, **batasun atzerritarra** dala, eta, orregaitik Euskeraren bere berezko batasun bakarra, euskaldun bakoitzak, euskera osoa ulertzeko, bere euskera ongi egin eta ezagutzen dala.

AINNTZA ETA ESKERRIK ONENAK AZKUE BIZKAITARRARI.- Ala ta guztiz txukun eta izkuntziztiaren araura zintzo ibilli zan Azkue bizkaitarra, Gipuzkera Osotua asmatu zuanean, kanpotik etorritakoentzat eta etxeakoentzat, ots. Euzkadi'ko biztanlerik geienak diran euskotar erdaldunentzat, EUSKERA IKASI DEZATEN bearrezkoa bait genuan. goxoki ta indarkeririk gabe bateratutako Euskera bat eta ortarako Erdiko Euskera, ots Gipuzkera bait dugu egokiena: Gipuzkerak berak ez dituan itzak eta dotoretasunak beste EUSKERETATIK JASOZ EDERTUTAKO Gipuzkera Osotua.

Zuek, bertsolari berri gazteok kultura idatzian ikasiak zerate-ta, agian ulertuko didazute filosofizko izkeTan esan nai dizuetana: "El batua" edo beste edozein batasuna, **ezta Gipuzkera Osotua ere**. ez da Euskerarentzat bearkizun ONTOLOJIKOA: baiña, bai, bearkizun PASTORALA bada: ots, ez da Euskerak. dan bezalakoa izateko bearrezkoa duan gauza, baiña, bai. Euzkadi euskaldun berriak irabaziz Euzkadi osora zabaltzeko bearrezkoa duana.

AOLKU BI BERTSOLARI GAZTEEI.- Zuek, bertsolari gazteok ederki egin dezakezute-ta, asi zaitezte Gipuzkera Osotuz Euskera salbatzen.

Ortarako zuen izpiritua gertutzearen, irakurri itzezute garai artako bertsolari aundiak, Xenpelar, Pello Errota, Otaño, Basarri. Uztapide, Lazkao Txiki, Lasarte...

Olerkari aundietan. zuentzako egokiena Tolosa'ko Emeterio Arrese izango duzute eta itzlauskolarien artean Lekuona Zaarra. Orixe'ren "Santa Cruz Apaizaren Bizitza" Euskeraz idatzi dan libururik politena da.

Errurik gabeko gizakumerik ez bai da. akats bat baiño geiago billatuko dezute batez ere bertsolari aien lanetan. Zuek aiek baiño eskola geiagokoak zerate-ta ikusi dezazute akats oietara zuek ere nola ez jausi. Zoazte al duzuten guztietan Gipuzkoa'ko erri txikietara an euskeraz itzegitera... Ez noski maixu-moduan ezer erakustera, entzutera ta ikastera baizik.

Poz aundia izango litzake nerea, iñoiz punttu-jortzaille batek onoko lau punttuok jarriko lizkizueke: "bildurrez", "parrez", "negarrez". "errez", edo onoko au beste batek: "Extremadura dira Kazerez Badajoz", edo irugarren batek: "i Gure kostako trenak zenbat kurpil ditu?", zuek, Zepai'k, Lazkao Txiki'k eta Uztapide'k bezain ariñ eta aienak bezain bertso dotore jatorrak jaurtizera iristeko gai gertatuko baziñateke.

Bagenuan beste antziñako ibilkari bat ere gaur aztertze-ko asmoa, bañan geitxo luzatu gerata. urrengo idatz-lanean egingo dugu ori. Gizon ospetsua izan zan Arnald von Heriff prusiarrak, bere Alemani'ko politikan kargu aundiak izan zituana. Datorren idatz-lanera arte ba, irakurle maiteok. Bitartean, neri zerbait esan nai ba'didazute, nere izenaren azpian daukazute urrutizki-ñaren zenbakia.

Latiegi ta Eraso'tar Bixente
945 23 31 40
Bitori

LERIN' GOAREN OINORDEKOAK



Aspaldion dabilz, Emilio Gebara eta Joseba Arregi, Lerin'go kondearen oinordeko pilitikoak, jo ta ke anor-emenka bazterrak astinduten, Legitimisten aurkako ekintza amorratu bizietan sartuta.

Bertoko semeak izanda, errege arrotzaren mirabe guraritsu biurtuta, euren bidelagun eta senitarteko izandakoen asmo eta elburu guzti-guztiak, amorraren amon•uaz, txikitu, ezabatu gurean jabilkuz, artega eta sutsu, ezpatari zeatz eta maratz. Arerio.

Edozein foro edo aukera darabile, areei egurra emoteko.

Eta ez da makala, ez, orretan dauken laguntzino mediati-ko-politikoak, nagusiaren esku interesatua, atan be.

Zertan egon dira, bada, urte askoan gure artean? Zeri ekin izan dautsoe gure ondoan bidelagun izan doguzan artean?

Ez dabe jakin izan euskal abertzaletasuna zer izan dan, ala? Ala, beste zeozergaitik egon dira gure artean barru-barrugino sartuta?

Ez daukat, orain baina, ez bai txintik be Espainiako erregearen interesen arabera gure artean izan diran bitartean jokatu dabena.

Espainiako erregearen gizonak izan dira eta badira.

Satorrak euskal abertzaletasunean.

Lerin'go kondeari legez, onei bioi be ondo baino obeto ordainduko deutseelakoan nago. Eta alantxe izango da, denporea lekuko.

Jeltzaleetan izan dira bitzua, urte askoan, eskoi soziologikoa eta kulturalaren printzerik musturrenekoak. Eskoitia-rretan eskoitiarrenak.

Azken urteotan, euren pentsabidea azaleratuteko gogotsu, bein eta barrian erabili daben El Correo Españolaren (El Diario de La Falange izanekoaren) leio monarkiko-unionistan argitaratutako idazlanak irakurtea bino ez dago. Eguzkia nora, zapiak ara.

Azken baten, espainiar eskoitiarren arteko merkatua.

Baina betiko aurpegi atzerakoi ori ostendu guran-edo, garbitu guran-edo, luzaroan ustelkerietan azitako Gal-politikoaren edota baita neofrankisten eskutik be dabilz arro-arro aspaldion.

EAEko estatutuaren ustezko "aldezlerik" itsuenak ei diranakaz alkartu dira.

Sasi-aldezle orreek inoz ezelango ez bairik estatutu ori indargetutako edo ez beteteko edozer egiteko errukirik eta lotsarik euki izan ez daben arren. Burlazar. Elburu zital orregaz, estatutua betetearen aurkalkoagaz, gure Emilio-Joseba goitik beera bete-betean datoz bat, aurki.

Alan bada, EAEko estatuaren 25. urteurrenean antxe ikusi genduzan, errege ordekaritzan. Mirandako kondea, erregeordearen ondoan egozan Albako dukea generala eta Villalba koronelarengandik ur be urtxu Lerin'go kondearen oiñordekook, gogotsu, irribarretsu, pozik. Zelango ez, bada! Errege ordekaritzan, erregearen gizonak.

Itauna, iruntzietara baina, auxe litzake: Zilegi ete da estatutua bete ez izana ospatuteko prest egotea?

Arako euskal olerkariak idatzia jatort gogora: "Txakur txarrak jango aal abe erribako zaldun dongea".

Abertzaleen aldarria baina: Gora Euskal Errepublika!

INIAKI MARTIARTU

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO
M.U.
LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabiliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZTA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuinak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. ZER'en argitaratuko dira.

Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.º eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da. Sariak bost izango dira:

- 1.º 300,50 euro.
- 2.º 240,40 euro.
- 3.º 180,30 euro.
- 4.º 120,20 euro.
- 5.º 60,10 euro.

Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

Abenduaren azkenera-arte luzatzen da epea.

EUSKARAZALEAK

IBILALDI EUSKALTZALEAK

Nere gaurko azalmena agertzean, ez noa iñungo ibilaldien izena aitatzera, zoritzarrez, neurri aundiago edo txikiagoan akatza bardiña dalako.

Ibilaldi oiek, zalantza barik, berarrezkoak ditugu lagunok, bañan oiek eratzean, ondo azterturik egitekoak dira, diru batzea bakarrik gogoan eduki gabe. Oien elburua, euskeraren berpiztuera da eta danok, gure izkuntzaren jabe egiñik, Euskalerrri osoan zabaltzea da gure eginkizuna.

Orduan, orrelako eginkizunetan, batez ere euskeraren jabe direnei, antolatzaileek, ibiltokian zear euskerazko iragarkiak jarri, gure izkuntza erabili bearra agertu bear die, geu gara eta eredu emon eta bultzatu bear degunok, bide ortatik, euskeraren zaletasuna duten guztiak gure ondoren erantateko.

Ez legoke ori esan bearrik, bañan emen daukagu borroka irabazi bearra, gure artean, aserretu barik, ez kaleetan zear ondamenak eta erreketak egiñik.

Lotsagarria da benetan gure artean gertatzen zaiguna, gure alderdi abertzale izeneko guzietan. Kide askoren aldetik, euskeraren jabe izan arren, geien baten

gaztelera z mintzatu bearra, bi gaztetxoan artean, eta lotsagarriagoa dana, zentzuna bear luketen elduen artean.

Guraso, irakasle, andereño eta baita eleiz gizon eta lekaimeak, nola ez, onetan erantzukizun aundia dugu. Ez da naikoa, gaztetxoak ikastoletara, euskeraz ikastera bialtzea, orrez gain, gure izkuntzarentzat, maitasuna eta esker ona izan bear dogu eta argi eduki, Erri bezela irautea nai badegu, Euskeraz eginez, berau, Ama gorde bear degula.

Gure AMA Euskera alboratzea edo txarrago, baztertzea, ugasana edo ama ordea erabiliz, ez da abertzale baten jokaera, ez eta euskaltzalearena ere. Auxe degu borroka, bigunena eta errez irabaziko gendukena eta zoritzarrez, gure zabarkeriagaitik, zailena gertatzen zaiguna.

Ekin daiogun bada maldazgora, euskera garaille urten dain, benetako Ibilaldi euskerazaleak egiñik.

Agur bada ez mesedez esandakoak gogoan artu.

Artolazabal Ilari

Itz apurrak dirala eta...

Poztasunez beterik irakurtzen ditut euskeraz ondo idatzitako iragarkiak bañan ardura gabekeriz egiñakaz biotz min eta negar egiteko gogoaz samindurik geratzen naiz.

Ona emen agerkeria batzuk euskeraz dakitenak egiñak:

Gaztelera	agertuak	euskeraz
leyendo un reportaje dicho famoso convendra	erreportai bat letzeu esaldi famatua komeniko da	barribildun bat irakurtzen esaldi ospetsua egoki legoke
habia un programa viene de primera para hacerle frente la suerte de reunirse	bazen programa bat primeran dator frente egiteko elkartzeko grazia	bazen egitarau bat bikain dator aurre egiteko elkartzeko doaia
la desgracia me trajo suerte el sentido principal esperar	zoritxarrak suertea ekarri zidan sentidurik printzipalena espero	zoritxarrak zoriona ekarri zidan zentzumen nagusiena itxaron
en un trabajo importante los problemas que plantea la vida responder y asumir con lealtad en un campo de concentracion	lan inportante baten bizitzak planteatzen dituen problemei erantzunkizuna leialki asumitzea kontzentrazio zelai baten	garrantzizko lan baten bizitzak iragartzen dituen arazoei erantzunkizuna zintasunez gain artu gizoztebilketa zelai baten

Ikasle bat naiz eta arri pitxi onek ez ditut azaltzen arrokeriz baizik lotsa ematen didalako eukaldun idazle batek ajolakabekeriz orrela agertzea.

Euskera goraldun nai badegu saiatu bearrean Bera, bada orren traketz egiñik gu izango gera erailtzaileak.

Euskeraren izakera ez dezagun larriago jarri.

Ez gaitezen berrirri esanaz Euskeraz ablatzeko maneria Casa Consistorialian emango dizue demostrazio palpablea.

A.tar I.

SALMOAK

60N.: JAUNAK
KONTSAGRATZEN DU
SANTISIMOA

1

Ezin da esan gure itzakin
egite Jaungoikozkoa,
apaldu zuen mai ura zuen
zazpi beatz altukoa.
Agindu zuan jartzeko maia
orainguan antzekoa,
Jesukristoren gorputz-odola
bertan kontsagratzekoa.

2

Mai berria zan jantzi zuena
toail aberatsarekin,
jarri zituen bertan plater bat
kopa arrizko batekin,
arri edo esmeraldazkoa
balio aundiñarekin;
nagusi arek eskeiñi zion
serbitutzeko berekin.

3

Jauna eseri zan mai onetan
baita're bere taldea;
esatu zuan: "Emaidazue
ogi legabi gabea".
Ekarri zien ta jarri zuan
platera ori betea:
"Emaidazue ardo purua",
jarri zuan edatea.

4

Zeru osoa aldatua zan
Zenakulo dan etxera,
an Eleiza berria sortzeko
graziakin argitzera.
Jesus eldu zan otoitz egiñaz
"Nere Aita-esatera-;
zu ta Espiritu Santuakin
beti nazue batera.

5

Zuk erregutu zidazun lana
gizonak erostekoa;
nai det bukatu, dedan gorputz
Birjiñak emandakoa.
Zuk emandako danak zugana
naia det jasotzekoa,
poza det gizonen semeakin
bizi ta barkatzekoa".

6

Jaunak begiak jasorik gora
arritutzeko moduan,
Ama Birjiña ta ikasleak
jarririk bilduz santuan,
ogia kontsagratzeko itzak
Jesusek esan zituan,
eta kristoren gorputz biurtu
zan egiaz segituan.

7

Ardoa kontsagratzeko itzak
esan zituan unean,
kristoren odol biurtua zan
egirik aundienean.
ta Aitak esan: "Au det semea
izate goxuenean,
eta gizonakin izango det
beren erbeste danean".

8

Jaun Espiritu Santuak auxe
konfirmaturik orduan,
eta Jesusen gorputz santuak
auspez adoratu zuan,
kontsagratuta gorputz odolak
zeudela sakramentuen,
egi egiaz dauzkagulako
Jainkotasunez batuan.

Salmo berria kontsagratu zaituen

(4)

Jaun-ge-ri-ke Ait- ta mai- te zai-

tu- gu... a-ri- ta- ren E- gi- se- a Jain-ke

se- re- a, mai- te zai- tu- gu- gortu-

en Sa- ba- tai- se- a Jain Es- pi- ri- tu San- tu- a

ze- ren a- ri- ta- ren e- mai- se- a gu- re

a- ri- man Sa- ba- ren se- ren pa- ra

ser- ven la- ri- gi- se- a

OTOITZA

61N.: AMAK JAUNA ARTU ZUEN

1
Jesus apaiza bera izan zan
lenengo komulgatua,
ezaguturik bere gorputza
zala gutxiagokua.
Dardar ikara sortu zitzaion
izaten ikutua,
umillatu zan bear dalako
erregentziz guk artua.

2
Ostia gontsagratuan daude
Jesusen gorputz-odola,
baita Jaungoiko Irutasuna
bertan baturik dagola.
Miñez oroitu zuan ditxa au
askok naiko etziola,
ta agertu zan jainkotasuna
aintzaz agitzen ziola.

3
Jesusek ogi kotsagratua
artzean maitasunakin.
bere Amari biraldu zion
Gabriel aingeruakin.

62N.: JAUNA IRTEN ZAN ILTZERA

1
Salbatzaileak betea zuan
Aitak agindutakoa,
ta laga zuan zenakuloa
mirariz betetakoa.
Ordu berean Ama Birjiña
izan zan ertendakoa
Seme Jaunari jarraituzeko.
zan miñ neurrigabekoa.

2
Ama Birjiñak eskeiñi zion
biotz dana supritzeko,
eta eskatu zion Jaunari'
Amari bedeinkatzeko.
Bedeinkatzean baimena zuan
berriz erretiratzeko,
eta Berari alzuan eran
samiñetan laguntzeko.

3
Ama-semek an despeditzen
nagusiak ikustean,
eskeiñi zizkan Erregiñari
zeuzkanak bere etxean.
serbitutzeko nai zuan eran

Aingeruak pozez bete ziran
jauna eramateakin,
esaten zuen: "Ai zer ditxa dan
bizitzea apaizakin".

4
Ama Birjiñak espero zuan
Jauna beregan artzea,
eldu zitzaion santu Gabriel
aingeru-taldez betea.
Bere eskutik adoratuaz,
artzen du seme santua;
nai izan zuan piztu artean
biotzean bizitzea.

5
Gero jaun kristok agindu zion
pedro apostoluari:
"Eman enok eta Eliasi
gorputzakin daudenari".
Jauna artzean eskerrak eman
zizken Irutasunari,
aingeruak eraman zituen
beren lekura kantari.

6
Guraso Enok ta Eliazek
biotza pozez zeukela,

Amak ontzat artutzean.
milla aingeru ikusten zeuzkan
andre batzuen artean.

4
Esaten zeuden fariseotarrak
beren apaiz gaiztoakin:
"Noiz etorriko ote da Judas
agindua duanakin?".
Une onetan eldu zan Judas
entregatzera seiñakin,
oso pozturik entzun zioten:
"Zuazte gogor armakin".

5
Jesukristoren maitasuna
da neurrikerik ez duana
ikusten zuan argi ta garbi
Judas gaiztuaren lana
eta Jesus zan Judas au ere
salbatzea nai zuana,
beragatikan bakarrik ere
iltzeko eskeiñi zana.

6
Jetsemaniko Baratzen Jesus
sartu zanean esana:
"Eseri eta zai egon emon
naiz otoitzera nuana.

neurrikerik gabe alaitu ziran:
laister zerua zuela.
Judas gaiztuak, apostoluak
Jauna artutzean zeudela,
nai izan zuan Jauna autikan
eraman jo zeiotela.

7
Asmoa zuan fariseotarrak
ogi au eramateko:
"Maixuak dio gorputza dala"
eta joka apurtzeko.
Ama Birjiñak aingeruari
agindu autik kentzeko,
garbitu eta besten artean
ixilikan ipintzeko.

8
Aingeruak au egiña zuen
Birjiñak esan bezela,
ogi ta ardo kontsagratuak
autikan kendu zizkela.
"Au ezin bazan beste kalten bat
egitea nai zuela".
Salbatzaileak aparti
ura bukatu zuan onela.

Ta zuek ere otoitza egin
ez galtzeko aultzen dana
Zortzi apostolu an lagata
irukin aurrera juana.

7
Jesusek otoitz au egin zuan
odolez izazdituta:
"Aita nerea, posible bada
jarri ni miñ au kenduta
Jaunak oToitz au iru alditan
Aitari erregututa,
Aitak San Migel biraldu zion
ipintzera indartuta.

8
Birjiñak jakin misterioaz
etsaia nola zeguan:
emakume on aiek tentatzen
gorroto aundiz orduan.
Baitare galduko ziran danak
ezagutuak zituan,
eta Jesusen antzera Amak
agonia izan zuan.

Aldalur'tar Justiñe
(Klaratarra)
Gasteiz

ERRI TXIKIEN BIZI-NAIA ILUSIOAREN INDARRA

Antzeko kondizio politiku zailletan oiñarriturik bizi diran Erri txikiak, nazioak alegia, alkar-laguntza billatzen jo bear izaten dutela sarri, ongi dakigu. Onek zera esan nai du: Europa'ko errealidade politikuak argiro adierazten digula ez gerala oraindik, Europa (famaz beintzat) aurrerakoi ontan arazo nazionalisten askebidera iritxi. Errien Europa nai bait-dugu eta ez Estaduen Europa.

Europa'k oso mingarriko zauriak agertzen ditu. Bertan, milloika dira giza-asebetetasunik pozgarriena gozartu ezin dutenak, aberri jarei ta lokabea ikusten ez dutenak.

Ez dakit nik zanbat Erri txiki izango geran alako kondizio estuetan bizi-eziña agertzen dugunok, baiñan askotxo gerala, bai. Galestarrak, eskoziarrak, bretañarrak, korsoak, euskotarrok.. Gales eta Eskozia gurearen antzeko autonomi-estatutorik ez eukiarren, naziotzat jotzen ditu Bretaña Aundiak berak. Eta nun-nai nazio bezela agertzen zaizkigu. Tokitan gaude, alajaña, euskaldunok onela agertzeko.

Aspalditxo, lenengo mundu-guda arek piztu zituan arazo latzak konpontzeko eta luzaroko pake iraunkor bati egiazko zimentarria emateko, Bersalles'en alkartu ziranen mentalidadea aztertzeraz jartzen geranean, ontara eltzen gera: etzegoala biltoki nagusi oietan ezer konpontzeko jarrera sakonik, bildutakoak ez bait-ziran Errien edo nazioen ordezkari egiazkoak, gobernuenak eta estaduenak baiño. Batzarkideak eta diplomatikuak etzuten Erri txikien aldeko argumentu moralarik maieratu.

Europa garatu onek ba'du noski, zibilizazioaren alde egindako meriturik aski; baiñan tarteka, baita Erri txikien bizi-eziñaren obena garbitu bearrik ere.

Ankapean artutako Erriak, giza-multzo jator auek ez dira beren-berenez eta borondate utsez iñoren menpera etorri; inork ez bait-du askatasuna nairik galtzen, iñork ez bait-ditu eskuak billurrez lotuak izateko luzatzen.

Gaur, gure Estatu politiku ontan, zenbaiten ez-jakin-tasunak kakaratutako españiar batasun nazionala sendoki jotzen diguten ontan ere, ba-dira, dakigunez iru arazo nazionalista larriak: euskaldunena, katalanena eta galle-

goena. Izango dira bai, olakorik ikusten edo-ta ukatzen dutenak. Baiñan ikusgarri zaigun errealidadea, begitik sartzen zaigun arazoa ez dago ukatzerik.

Gure Euzkadi'ri gagozkiola, iñork ez dezake esan gure Erria amets uts edo-ta irudimenezko zerbait danik, nun-naitik begiratuta, kultura naiz izkuntza-aldetik, bizi-molde ta abarragatik, oso berezia agertzen bait-zaigu alboz-albo dauzkagun guztiengandik. Europarrak, danak ametitzen dute ta aldarrikatzen dute, nolabait, gure euskal naziotasuna. Agian ametitzen ez duana españiar estadua da. Iraiñez, bekaitzez naiz gorrotoz zapaldu nai gaituzte eta osorik ezabatu nai izan dizkigute gure agertzapen guztiak, Erri gerala nabarmenerazten dizkiguten agiri guztiak.

Oraintxe bertan, or ari zaizkigu gure parlamentariak eta kontseilariak zor zaigun Erri-askatasunaren puxka dan Estatutoaren bete ez dana zorrotz eskatzen, gure Erria'rentzat dagozkigun eskabideak bearresten. Madril'ek ordea, ez du eskubide-itzi ulertzen eta ezago oraindik bearretsi-aditza onartzen. España'k eskalezurrian ikusi nai gaitu beti. Senide apal nai gaitu. Guk, ordea, amatzat aitortzen ez dugula maiz jakin-erazi diogu, sasi-amatzat baiño. Eta burujabe izan geran bezela, era berean burujabe izaten jarraitu nai dugula. Lapurrari neketsu zaio ostutakoa biurtzea. Galdetu bestela espetxean dagoan Roldan orri. Eta beste batzuei.

Kendu zigutenaren biurrera nai dugu. Besterik ez. Gure txapela nai dugu ez koroia. Baiñan ba'dakigu ez dagoala ezer lortzerik besoak antxumaturik. Ekimenak, lanak, iraunkortasunak asko desakete joko ontan. Eta ilusioak ere ez gutxi. Ideiak zabaldurik daude. Eta gure Estatu guardiazibil onek, beti begi zearka ikusi gaituak, auznar beza noizpait, gure pakefako eta lasaitasunereko euskaldunoi dagokigula euskal Etxea jaurri ta gobernatzea. Ta ez kanpotik noski, etxe barrutik baiño.

Egaña'tar Gotzon

Zori ona gabonetan!!!



Zori ona urte barrian!!!

GURE WEB ORRIA:
www.euskerazaleak.biz

EUSKERAZALEAK

EUSKERAZALEAK

EUSKERA ERABILTEAREN

ALDEKO ALKARTEA

BILBAO'N, 2004-04-23

IRALA'TAR XABIER
BILBAO BIZKAIA KUTXAREN
ZUZENDARI GUZTIZ AGURGARRIA'RI
BILB AO' RA

Jauna:

Oraintsu entzun dogu samintasunez, Zuzendari zaituan Bilbao Bizkaia Aurrezki Kutxak 2005. urterako ez dauala emongo aspaldiko ogetak urteetan argitaratu dogun eta eguneroko orritxua eskintzen dauan egutegia argitaratzeko diru-laguntza.

Egutegi au pozik artzen izan dabe millak euskaldunak emen doatzuzan lekuko batzuk azaltzen daben lez.

Aurten be lanik geiena eginda euki dogu emen erakusten dautzuguzan galeradak erakusten daben lez.

Arren bai arren eskatzen dautzugu Euskerazaleak Euskera Erabiltearen Aldeko Alkartearen izenean, ez dagiskuzula ukatu laguntza ori eta jarraitu dagizula, ain bear-izan aundian daukagun Bizkai'ko gure euskereari laguntzen.

Biotzez agurtzen zaitu

Olazar'tar Martin
Alkartearen Lendakariak

bbk

Jon Mancisidor Solabarrieta
Zuzendariorde nagusia
Subdirector general

MARTIN OLAZAR JAUNA
PRESIDENTEA
EUSKERAZALEAK
Colon de Larreategui, 14-2 D
48001 BILBO

Bilbo, 2004ko maiatzaren 20a

Jaun agurgarria:

Gure Lehendakariari bialdu deutsozun gutunari erantzunez, lehenengo eta behin, gure Erakundearen esker ona adierazten gura deutsut emon, honeetan urteotan Bizkaiko euskera zabaltzeko egin dozuen beharragaitik.

Baina, beste alde batetik, gure bezeroen kexak hartu doguz azken urteotan, argitalpen horretan erabilitako eredu ortografikoagaitik eta euskerearen arau normalizatuak ez beteteagaitik. Era berean, kexu da jendea argitalpen hau kontu gitxigaz eginda dagoalako.

Daukaguzan baliabideei ahal danik eta etekinik handiena atera behar deutsegu. Hori dala eta, gure jarduera eten barik bideratu behar izaten dogu onarpen zabala daben erizpideen arabera, ahalik eta lagun gehienengana iritsi gaitezana.

Horregaitik guztiagaitik, tamalez, ezin dogu zuek egindako proposamena onartu, baldin eta modu nabarmenean aldatzen ez badozuek edizino erizpideak eta zuzen agertuko danaren bermerik ez badogu.

Jakizu zure esanetara nagoala eta hartu eizu agur bero bat.

EUSKERAZALEAK: URTEKO BATZAR NAGUSIA

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 2005'ko urtarrillaren 27'an (egunean) gure erakundearen etxean arratsaldeko 8'retan izango dan oiko batzar nagusira, urrengo egitamuz:

- 1.- Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onespina.
- 2.- Diru-egoeraren azalpena.
- 3.- Urteko ekintzen azalpena.
- 4.- Eskaera ta itaunak.

LENDAKARIAK

EUSKERAZALEAK: ASAMBLEA ANUAL

Querido asociado:

Mediante la presente te convocamos a la proxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrara el día 27 de enero de 2005 (jueves) a las 8 de la tarde en los locales de nuestra Asociacion y con el siguiente orden del dia:

- 1.- Lectura y aprobacion en su caso del acta de la Asamblea anterior.
- 2.- Estado de cuentas.
- 3.- Memoria de actividades.
- 4.- Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE

Bizkai'ko Mungia'tik, 2004-05-28

Jon Mancisidor Solabarrieta jaunari
Bilbao'ra.

Jaun agurgarria:

Artu dot il onen 20n. eguneko zure eskutitza eta asko poztu nau Bizkai'ko euskerearen alde egiten dogun lanagaitik agertzen dauskuzun zure esker onak. Bai, orretara doaz nire alegin guztiak eta, neure bear-izanak bete ondoren, nik irabazten dodan dana.

Beste alde batetik, mindu egin gaitu guk, eguneroko orritxua dakarren egutegia aterateko, zuen laguntza ukatzeak, baiña erarik onenean onartu dogu zuen erabagia eta biotzez eskertzen dautzuegu aspaldiko 21 urtean emon dauskuzun laguntza ori.

Orain parkatu egistazu gure jokabidearen oiñarriak agertzeko eskutitz au luzatzea.

Bezeroen kexak artu dozuezela diñozu. Nire ustez kexa olTeik Euskaltzaindiaren ingurutik etorriak izango dira.

Gure eredu ortografikoa 1968n. urte-aurretik Euskaltzaindiak erabilin ebana da eta gure euskerea Azkue Aundiak erabilten ebana bera.

Nork guri debekatu dagiskigu Bizkai'ko euskera batu au erabiltea? Euskaltzaindiak? Ez. Jaurlaritzak? Ez. Idazleok askatasuna daukagu nai dogun euskerea erabilteko eta ori debekatzeko alegintzen diran jauntxuen ekintzak ez doguz onartzen, jauntxukeriak dira.

Gu "Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia"koak gara eta Akademi au Euskaltzaindiaren bestean da legezkoa, bai Madrid'eko Ministeritzak bere sasoiaren eta bai gero Jaurlaritzan dagokigun Sailleak onartua. Eta guk geure ortografia daukagu.

Egutegiaren argitalpena ez da kontu gitxigaz egiña. Neuk bateratzen dodaz lanak eta neuk zuzentzen dodaz irarrolako probak, kontu askogaz. Izango dira akatsak, edozein giza-lanek izaten dauzan lez, baiña gura neuke jakin oker orreik zeintzuk diran, zuzentzeko. Barriro diñot, or atzean Euskaltzaindiaren jokoaren susmoa agertzen jat niri.

Uste dot ba-dakizula Bizkai'ko euskerea baztertuta dagoala: EITB'n iñoz ez da agertzen iparraldeko euskerak be txokoa izan arren (Orena), aldizkaririk ez da bizkaieraz agertzen gure ZER apala baiño, libururirik ez da bizkaieraz agertzen geureak izan ezik... Zergaitik il nai dabe Bizkai'ko euskerea? emen aurkituko gaitue gure euskerea bizirik atera nai dogunok tente, zutunik!

Ille batzuk dirala ETB'ra deitu eusten eta nigaz batera joan zan X. Kintana Euskaltzaindi'koa be, eta onek gauza bi esan eustazan bidean: H'a anekdota bat baiño ez dala eta euskera batua Arantzazu'n onartu zala, aparti baten ondo jan eta edan ondoren, (1968) ez akademi batzar baten, alkartze zaratatsu baten eta autarkirik emon barik baiño. Nok dauko eskubidea gure euskerea orrelan manipulatzeko? Euskerea erTiarena da eta ez Euskaltzaindiarena.

Baiña ETB'n egon giñan egun aretan nire eritxi oneik agertu nebazan, H'aren aurkakoa be bai, eta olakoetan oi dan lez, mikroagaz kalera urten eta itaunketa bat egin eben, eritxiak artzeko, eta kaleko jente guztiak erantzun eban H'rik ez dala bear eta nastea sortu baiño ez dauala egiten.

Ekintza aren zuzendariak be esan eban erritarrak "Euskerazaintza"ri errazoa emoten eutsoela.

Baiña H'ari buruz zerbait gieago esan dagidan.

Oraintsu jakitun batek iru idazki artu dauz, bata frantze-raz, bestea gaztelerez eta irugarrena euskeraz, eta idazki bakoitxak zenbat "H" eukazan zenbatu eban. Auxe da ondorena: Euskereak beste izkuntza biak daukazen lako bi (doble) "H" eukazala.

Gero or dabiltz euskerearen ikasleak H'a non ipiñi ikasten urteetan.

Italieraz H guztiak kenduta dagoz, esaterako "historia", "H" barik idazten dabe Ez dira gelditu lau "H" mutu baiño, "yo he, tu has, I ha eta ellos han" baiño. Ikusi esaterako Gramatica Novissima Italiana, Alfredo Petrocione'rena, Madrid'eko Editorial Romanica'n.

Eta zer lortu da Bizkaia'n batua sartzeagaz?

— Ikasleak ikastoletan euskera batua egiten dabe, baiña jolastera doazenean gaztelerez entzuten jake. Ori neuk ikusia da.

— Ikasleak etxera doazenean euskeraz egiten ba'dabe gurasoak eta aitiba-amamak ez dautse ondo ulertzen eta umeak gurasoai entzuten dautsen euskera ori txarra dala esaten dautsee. Azkenean etxeetan gaztelerez egiten da eta iñoz gurasoak euskeraz eta seme-alabak gaztelerez urteetan. Ori be neuk ikusia. Nora goaz? Non geratzen da Bizkai'ko euskerea.

Azkenean gure euskerea aldatzeko eskaria egiten dauskuzu, laguntza emon al dagizuen, baiña guk gure eritxiak eta jokabideak argi eta sendo daukaguz. Ez doguz aldatuko ezergaitik eta gitxiago diru-truke. Parkatu gogorregi esan ba'dot.

Amaitzeko, erriari azaldu bear dautsagu zergaitik ez dan argitaratzen, argitaratzen ez ba'da, eguneroko orritxua dauan bizkaierazko egutegia eta orretarako zure eskutitza eta nire erantzun au agertuko doguz "ZER bizkaitan-ai bizkaieraz" gure aldizkarian, zeuk orretarako ezetza emoten ez ba'dauskuzu.

Biotzez agurtzen zaitut eta artu egizu orren ezaugarri lez eskutitz au.

Besarkada bat.

Olazar'tar Martin
"Euskerazaleak Alkartea"ren Zuzendariak

Nire zuzenbidea: Olazar'tar Martin

Jon XXII, 2, 1.º

48100 Mungia Bizkaia

Tel. 946 740 123

OARRA: Tamalez, aurtan ezin izango dogu argitaratu gure egutegia, eguneroko orridun "takoa" darabilgun "ortografia" gaitik, H'agaitik batez be, beste zio batzuren artean.

EUSKERAZALEAK

ZUGATZ BAT SARTU DAUANARENA
EZ DA ALPERREKO BIZITZEA

DANTE

ANDRA MARI DANTZA-TALDEA GALDAKAO

Albokea

1963garren urte ortan dantza taldeko liburuñoak, Jose Luis Bengoa Zubizarreta jaunaren itzaldietan ere banatu ziran, Mariano eta Erromaldaren alboka soñu eta pandero ta kantu otsekin argituaz.

Urte berean, Jose Mari Iriondo, Radio Loiola'ko esatari jaunak, emisora ortan jotzen zegoen txalaparta otsaren grabaketa zinta baten bialduko eustala esan eustan. Uste dot Bizkaira zetorren Lenbiziko txalaparta grabaketa izango zala.

Txalaparta zinta, taldera neure izenean eldu zan: baiña nirekin itzik ere egin gabe, Bengoa jaunari pasa eutsoen. Urte batzuk geroago, txalaparta lanen batuketa neretzat egin neban. Laxarte'ko Zuaznabar txalapartariekin asi ondoren.

Albokarie

1964gairen urtean Andra Mari dantza taldeko Maria-no Albokariek, Erromalda panderojotzalleak eta Martze-lo soñulariek CINSA etzean grabatuta. alboka ta pandero eta soiñu eta panderoen otsak eta kantuak argitaratu ziran.

1966garren urtean Mariano albokariak, albokeagaz eta panderojole barik, bakarrean, Gales errialdeko Llangogllen'en erritar soñu gaietan. bai talde eta bakarlariekin nazio arteko leiaketan irugarren saria lortu ta irabazi eban.

Besperan Andra Mari dantza taldeak nazio-arteko dantzetako lenengo saria lortu eban errietako dantza taldean artean.

Egun gitxi geroago. Escocia errialdean amasei bakarlarie artean, erritar soñugaiekin, Andra Mari dantza-taldeko txistulari Juan Jos Altuna'k. txistu ta danboliñakin bigarren saria lortu eban; eta Marianok albokarekin bakarrean irugarren saria. Urte ederra Galdakao-tarren-tzat.

Urte asko geroago, 1984garrenean, eta albokarako, Marianok zortzi idazketa apaindu ebazan. ta euron artean, azkenengo irurak. Lenengoa Bigarrena ta Ariñeketakoa izan ziran, lru zilodun tutuari ago zuloa estali ondoren, albokearen bost zilodun tutuetan jotzeko.

1984garren urtea ere izan zan Andra Mari dantza taldeko espatadantzari ziran Koldo Telleria eta Jose Angel Sagasti'k albokea jotzen eta erabiltzen irakasteko eskatu ninduen; eta taldeko gela baten, egunero ikastaroa egin ille bat eta erdi inguru-marien albokarako arnasea egin

eta Lenengoa Bigarrena eta Urkiolako Ariñeketakoa jo eta erabilten ikasi eban.

Koldo Telleria, orain urte askorik ez dala alboka onak egiten eta apaintzen oso trebea izan da. Albokak ondo jotzen jakiteko eta alboka egille onak izateko, musika jakitea ez da premiazkoa. Ori ikasle eta irakaslen arteko joera-bide ortan dago.

1990garren urtean Galdakako neska mutil talde batek Mariano'ri eskatzen die albokea erabilten irakasteko.

Albokearen ikasketak Dr. Gandasegui eskoletako gela baten izaten ziran, udaletxearen aurrez aur.

Berton ikasi eban albokea jotzen ikasteko arnasea egiten, albokea nola erabilli eta albokarako fita eta soñu tutuak zelan egin.

Gure alboka jotzen, ikasle onak ere atera ziren: Patxi Raio, Urtzi Uriarte eta beronen anai Aitz Uriarte.

Andra Mari dantza-taldeko Jose Inazio Basterretxea eta Daniel Lara jaunok, alboka jotzen euron podezuz ikasi eban.

1996garren urtean Andra mari dantza-taldeko lenda-kariak, taldeko gela baten albokea jotzen irakasteko eskatu zion Mariano'ri.

Bilbotik. Pamplona-Iruñatik, Galdakaotik eta taldeti bertatik guztiz ogeitabi ikasle agertu ziran.

Berton albokea erabilteko arnasea nola egin. alboka jole izaten, albokak egiten, albokeari koplak eta soñu otsak zelan kantau, eta Lenengoa Bigarrena eta Ariñeketakoa zelan dantza egin ikasten zan.

Ikastaroak larunbatetan izaten ziran goizeko amarretatik egurdiko ordubatak arte eta arrasti aldean iruretatik seiretara. Kanpotik etorten ziranak, geienetan baskaltzen taberna batera joaten ziran.

Larunbata egun baten. Andra Mari dantza-taldea erbestean dantzan zegoela, eta bazkal orduan, norbait gure saio ikasguan sartu eta neure grabadora eta bertan zegoen zinta ikastaro eta soiñu bereziekin. baita paperak, eta Asier ikasle gaztearen albokea ere, danak lapurtu euskuezan. Panderuen ikastaroa ere arteko izan gintzazan, baiña urrengo urtean uste gabe bateko gertakuntza gaitik 1977-4-15ean ikastaro osoa eten izan bear nuen. Ikastaro ortan. Andra Mari taldean be ikasle ta alboka jole ta arlo ortan onak atera ziran: Argibel Euba, Ainara Artetxe, eta Asier Balenzia. Eta orrela ikasi ebezan albokaren arloko jakin bear direzan gauzak.

Anartz Ajuriagojeaskoak bere aizta Janire panderojotzailleak lagunduta, ikastaroa asi eban, baiña maiteago zuen Andra Mari dantza-taldean albokalari baiño trikitalari ona izatea.

Naita dantza-taldeak beti euki nauan eta naukan beren agindura, nik Mariano'k, esan neuntsen taldean albokarik ez nebala joko, eurak ordurik aurrera taldean bazeukezelako nire alboka eskolako iru gazte albokolari. Argibel gazteari esan nion bera izan dadilla taldeko iruretatik lenbiziko albokaria jantza taldeko eginkizunetan.

1998garren urteko urtarrilaren asieran, Sabin Bikandi, Galdakaotarra, Bilbon Uri Udaleko txistularia, baiña Andra Mari dantza-taldeagaz zer ikusirik ez eukana, bein taldeko gelara etorri, eta, euskerazko eskutitz bat taldekoari eskañi zion, noizka dan ipiñi gabe, laguntzea eskatuten idazkitegiko lanak eta Alejandro Aldekoa Berriz erriko txistulariaren barriak ere bai, danakaz Ingalterra laterriko Londres irian master bat egin nai zuela-ta. Noizkoa dan ipiñi barik zegoen Bikandiren idazti ori, taldeak urteko lenengo batzarrean 1998ko otsailaren 23'an egin eta eskutitzari taldeak egun ori jarri zion. Bikandi'ren esanetatik, albokea jotzen Mariano'n liburutik ikasi eban.

Bikandi eta beren lagun Jabi jaunak, biak txistulariak; Marianoren lanetatik bibliografiak eta partiturarik geienak baita jakin gaiak, euronak liburu ortan idatzi eban. UZTARRIaren inprimu edo irarri, Gasteizko Udalak 1997-9-15ean ordaindu eban.

1998garren urtarrilan, Bikandi jauna Andra Mari dantza taldeko Argibel jauna nire alboka ikaslearen etxera joan zan, UZTARRI liburuaren opa egin ta eskeintza siñatuaz, ta bide batez Argibel'eri esanaz: Marianok taldean albokea jo gura ez ba dau neuk joko dot. Eta ori orrela, egun gitxitara, 1998ko urtarrilaren 12an Andra Mari dantza-taldeak Galdakaon Torrezabal Kultur Etxean Andra Mari'k egin eban jaialdian taldeagaz Bikandi lenengo aldiz asi zan alboka jotzen.

Bikandi Mariano billa 1997ko azaroan, taldean agertu zan Mariano'ren moduen alboka lanak nai egin ebazala. Baiña 1997garren urteko irailean bazeukan eina UZTARRI; eta 1998an laguntzea eskatzen, eta Alejandro txistulariaren barriak artu ta gero egin eban Londres'ko masterra eta Alejandro buruzko lana.

Albokarie

Alejandro Aldekoaren lana eginda gero, 45garren orrialde inguruan, ingelesez Bikandik auxe diño: 1996-97an asieran Andra Mari dantza-taldean albokea joteko norbait bear zala eta ori izan zala taldeari laguntzeko beren erosotasuna eta musikariaren artean biltzarkide izan. Baiña ori orrelan ezta guzur makalak Bikandirenak, 1996-97an Andra Mari Alboka Ezkola neukan eta Bikandi jauna dantza-taldea lenengo ta bein eta laguntza eskatzen siñatu gabeko kartarekin 1998garren urtarrilan eldu zan. Eta ingelesezko Alejandro txistulariari buruzko lan orretan bere esaten dau eztakiela albokeak musikaririk duen ala ez.

Urte berean, 1998garrenean, Andra Mari dantza-taldeko Asier Balenzia jauna, nire alboka eskolako albokari gazteari eta Sara'ri nire etxean saio batzuk emon neuntzietan; bai berari eta Sara'ri panderojolea Erromaldaren birlobari ere. Bikote au Andra Mari taldeagaz Galdaka'o'n, Kurutzeko plazan, 1998ko irailaren 20an euron lenengo saioa egiten pareu ziran, ainbat dantza-talde, alboka eta pandero soñu ots eta kantuetan dantzan jartzeko. Asier albokaria eta Janire Ajuriagojeaskoa beren pandero ta koplakin, bikote bein baño geiagotan ere izan dira.

Eta orrela era apalean kontauta, emen agertzen da Andra Mari dantza taldearen sortuerako istoria, baita albokearen eta bertotik pasa direzan albokariena ere bai.

Andra Mari dantza-taldeko Anagrama.– Andra Mari dantza taldeko tokiaren ateetan ol bat jarrita dago, 340 milimetro zabalerakoa eta beti gora 265 milimetro luzerakoa. 01 orretan burriñezko albokaren irudi bat eta ANDRA MARI izena 1982 urtean biak burniztuta dagoz.

Ori da taldearen anagrama, eta erabiltzen dabe eskutizetan, jugoietan eta abar baiña bidai eta jardunaldietan ere eroanaz, orrelan darabil, alboka irudia eta izena Andra Mari eusko dantzari taldea jarriaz.

Jose Mariano Barrenetxea
(jarraitzeko)

EUSKERAZALEAK

Euskal Astea: 2004-11-22'tik 26'ra

- 22.- ASTELENA: Bertsolaritza: Murua Josemaria.
- 23.- MARTITZENA: Euskalerrria Europa'n (I): Atutxa'tar Paul'ek.
- 24.- EGUASTENA: H'ari buruz dana argi ta garbi. Olazar'tar Martin'ek.
- 25.- EGUENA: (Abertzaletasuna gaur) Aginaga'tar Miren Kasilde' k
- 26.- BARIKUA: Euskalerrria Europa'n (II): Atutxa'tar Paul'ek

BUSH IPAR-AMERIKETA'KO LENDAKARIA



Ez neuke gurako, idaz-lan onen bitartez emoten doten barria edo nire barria, Euskalerrria-ren arazoagaz zer ikusi aundia daukalako, sendimenezko iritzitik eginda dagoela ulertu daiten, bai minkortasun edo sentikortasunen bidetik, Euskalerrriari Nortasunean ipinten dautsoezan eragozpenak, gure arteko sendientzat, erriaren-miña'n, sendimendu orreik esku-luzeak daukiezelako.

Bush'ek, azkeneko lau-urte oneetako agintaritzan, Mundu onen Erriak eta Gizartea ankaz gora ipiñi dauz, Mundu onetan oreka bear dalakoaren aitzakiagaz.

Arrigarritu egin gara Ipar-Ameriketa ko auteskundeetan sortu danagaitik ?.

Ainbesterako ez leuke izan bear, Mundu onetan gaur, kontuan eukiten ba-doguz, zeintzuk diran erabiltzen doguzan arauak gizartea orekatzeko.

Ez dogu zetan arigarritu bear arrazoiaren lojikalzko aritik ikertzen ba-dogu.

Orregaitik, Europa'ko Edestia arin baten begitu daigun, jakiteko, erriak eta gizartea orekatzeko erabiltzen doguzan arauak erabili ez gero, berezkoak dirala agertzen diran ondorioak agertutea.

Eta, gaurko Ipar-Amerika, Europa ren luzagarri bat baiño ez dalako, emendik joanda, bertakoak geienean suntsitu ta geratu zirenak menperatuta, Europako lege bidetik oiñarritu ta jaurtuta dagozelako.

EDESTI LABURRA:

Erromatarrak, ameskerian ezarri ziranetik Mundu guztia euren agindutara ipinteko, Grezia 'ren ta kromañoen demokrazia suntsitu gurean, naspildu ta banandu

ebezan. Eta ekintza ori aurrera eroateko erabilizituen tresnak, Latiña, Grezia 'ren jakintza, guda-loztea eta Erromatarren legeak ziran.

Eta azken baten erlijioaren Kristau-morala euren alde eukiteko, katol ikotasun aren alderdia, euki eben menperatailleko tresneriari gaiñeratu eutsoen.

Erromatarren ostetik Godo'ak etorri ziran, tresneri bardiñakaz ezarri ziranak, erromatar- legeak euren menperatzaille asmoakin gogortuta.

Baiña, Mauritarak agertu ziran, euki eben Kristautasuneko ekandu gaiñean 622'an Maoma'k Islam'eko alderdia gaiñeratuta katolikotasunari aurre egiteko.

Godo'ak suntsitu ziran, eta Mauritarrai aurre egiteko, Europa'ren berezko-erri arteetan bearrezko gauzak egin bear ziran antolamendu barrietatik, Jaun-Erregetzak sortu ziran.

Berezko errien artean, barriztu egin ziran "LEGEZAR DEMOKRATIKOAK" Kromañoen gizartearen etorkizuneko ikas-bidetik lortu ziranak. Baiña Jaun-Erregetzak, apurka, Erromatar ta Godo'en menperatzaille arrokeri-ustel asmakizunagaitik arrapatuta geratu ziran, Erromatarren izkuntz-latiñean, katolikotasun alderdian eta legeen dogmaren-arauzko arrokerian ezarri ziralako.

Jaun-Erregetzaren maldaberan, Frantzian 1.789'an guzurrezko iraultza egin zan, Frantzia'ko errege izateagaitik, Frantzesen errege biurtzen ebalako laterri-lez, berezko erriak suntsitu daitezcan, aberri barriak sortuta. Gaur Europa guztian daukaguzan laterri menperatzailleak dira orreik.

Sortu ziran teknologi-barrien langintzan, langilleak ondasundunai aurre egin eutsoen, oneik menperatzaille asmakizun gogamen orren gaiñean ezarrita egon ziralako, laterri barrien babesean.

Ezkertiarrak deritxon iritzia urriñ joan zan, Estaliñ'egaz menperatzaille biurtu arte, eta egi-billa joan ziranak menperatzail leen antzera berezkotasunetik kanpo ibili ziralako blaustadan porrot egin eben. Oneik be, berezkoasunaren gaiñetik joan ziran errien artekoak egin ziralako, berezko erriak kontuan euki gabe. Zentzuzko arloan zelako erriak ziran laterri orreik ?

Asken baten nai bata eta besteak, asmakizun orrekaz, gizartea, xautzailletazunezko bizi ustel-batera eroan gura dabe, mozkin, dirua ta indar guztiak ikur-lez euren eskuetan eukiteko eta sasi-jainko asmakizunean ARRO bizitzeko.

Baiña Laterri oneik be, eziña nabarmen erakusten asi dira, JAINKOA'k izadi oneri ipinitako legeak gaiñean daukiezelako.

EDESTIAREN ONDORIOA:

Zer da edesti-laburpen onen mamian ikusi doguna:

a).- Sasi-jainkoen Asmakizun orreik, erriarteko gizarteak sekula ez dauzala kontuan euki (ez gaur be, nai laterrien jaurkintzak egia dala esan, berezko errien gaiñetik jokatzen daualako), euren eskuetan euki dauan indar guztien keñuagaz beartuta, euren asmakizunetara erabili baiño.

b).- Edesti guztiko menperatzaille asmakizun egipide orreik, beti zalaparta edo porrot egin dauala JAINKOA ren Lege kanpotik ibili dalako diru-zalekerian ezarrita.

d).- JAINKOA'k, danak billuzik bialtzen gaituula Izadi onetara, eskubide ta ardura bardiñekin.

Eta zer da gertatzen dana:

a).- Izadi onen bizitza, bereiztasun gaiñean ezan-ita dagoela, azken baten JAINKOA'ren asmakizuna beteteko.

b).- Iñork ez daukela iñungo eskubiderik, iñoren ardurak nor-berak eroan edo beteteko, danak ordezkari-tzazko bizi baten jaio garelako. Eta lege orrek danok beartzen gaitulako.

d).- Eta aundiena dana, ao zabalakin esaten ba-dabe DEMOKRAZIA'n gagozala, ez da egia !!. Egia dana, DEMOKRAZIA'ren atetik sartzeko beartzen gaituenak IZADI ONEN LEGEAK dirala. Eta ate ori estutu egiten dabenak, guzurrean jokatzen dabenak dirala, sasi-jainkotasun onek geiago irauan dagian.

AMERIKETAN:

Ameriketara Europa'tik eroan eben gogamenezko iritzia, European ainbeste borrokaren bitartez oiñarritu gura eben sasi-jainkotasun ori zan. Baiña jaurkintzaren antolamenduan utsetik asi ziralako, demokrazi-antzeko baten edo lokatzezko anak daukezan laterrieatan oiñarritu ziran.

Zergaitik esaten dot demokraren antzeko baten ?:

a).- JAUNGOIKOA'k Amerika zaindu dagiala eskatu egiten dabe zerura begira. Euren iritziz JAINKOA izango ete da.... bestien urriñeko senideen antzeko bat edo bestien JAINKO-atzerritar-bat ?. Or ! dago daukien zantzu bat.

b).- Diruan: Munduko gertakizunen bidetik, DOLARRA, gizartearen zor-eskubidearen elburu gaiñetik ipini dabe, euren kontrolpean egon daiten.

d).- Edesti guztiko asmakizunean, gaur menperatzaille tresnak euren eskuetan egonda, ez dabe eukingo zirikadarik..... Erromatarrak, Godo'ak, Mauritarrak, Napoleon, Hitler eta Staliñ'ek euki ebazanak ?.

BUSH:

Bush, nire eritzian, eta ikusten dodan lez Mundu onen gizarteko geienengoen eritzian, betiko menpera-

tzaille asmakizunen nausigai edo oiñordezkoa da. Izango ete-da gai. Munduko bigarren guda ostetik, erri ta gizartearen ordezkari-tzarako eskubideetan artu ziran erabagiaren gaiñetik ekintzeko ?.

Ba-dakigu Bush. Ipar-Ameriketako Eleiza Ebanjelikoan oso onartua dana eta Eleiza orreitan zabalkundea egin dautsoela, gero diru-laguntza be artzeko ustez.

Mundua'k bere lepo-gaiñean dauka zalantza ori, Damokles'en espataren antzera, iñoz ez dotelako ikusi ollo-toki baten azeria olloak babesten.

EUSKADIN:

Euskalerrriak, gaur badaki zer daukan gaiñean. Eta gudalozteko pelikuletara aurrerantzean jokatzen badogu, Munduan sortzen asi diraren antzera, menperatzaille asmakizunezkoak gaur eta beti berezktotasuna madarikatutzat eukiten dabenak euren betiko asmakuntz orreik ebagi egiten dabezelako, gai dirala Munduko gizarteari beste aztinketa gogor bat emoteko, eta Espainol'ak guri, orren aitzakiagaz. Nai azken baten Demokrazia'ren ate erditik danok sartu bearra, aztinketa orren ostetik, bizitza iñorentzako ez zan izango zorionezkoa.

Demokraziaren politikazko joko bidetik bideratu bear doguz gure ekintza guztiak, arrazoa gure alde edo berezktotasunaren aldean dagoelako.

Gaurko Laterri-menperatzaillearen guzurrezko asmakizunak berezko LEGEA'k beartuta eta abertzalearen alegiñakaz maldaberan dagoz, gaurko ordezkari-tzazko ekintzan, gero ta geiago danon ardura eskatzen daualako.

Orregaitik Euskalerrrian, lortu gendun DEMOKRAZIZKO LEGE-ZARREN senean zuzen, zeatz, zentzuz eta zuurtasunezko neurri onean politikazko arloan jokatzen ba-dogu, Euskal-Nortasunaren Askatasuna geurea da, berezktotasunaren egia gero ta bearrezkoagaitik aundiagoa dalako.

Euskadi'k, izar dirdiratsueana izan bear dau, Europa berezktotasunera bideratzeko, danon askatasunak lortu daiguzan.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZA'n 2.004'an ZEZEILLA'ren 7'an


**AZKENENGO ARRAIÑA JATEN
DOZUNEAN, AZKENENGO LANDAREA
IGARTZEN DANEAN,
ORDUAN, BAI, ORDUAN JAKINGO
DOZU DIRUA EZ DALA JATEN.**

AMERITAKO INDITARREN ESALDIA

EUSKALDUN BARRIENTZAT



AMAR EZBARDINTASUNAK



IRU ZATI BEAR DOZUZ OGEA EGITEKO: AURKITURKO DOZUZ!

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

2004-2005 IKASTURTEA

OGEI TA AMAZAZPI GARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 135 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGI, 14-2 -
URRUTIZKIÑA 94 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 13'AN

37° CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELESY CONVERSACION

Dias: LUNES, MI RCOLESYVIERNES, O MARTESY JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDEY NOCHE

Curso completo: 135 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGI, 14-2 -TEL FONON 94 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 13 DE OCTUBRE

BBK

EUSKEaXZXLEM

Colon de Larreategi, 14 - 2.ª dcha
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartela



BBK txartelek opariak
gordetzen dituzte

www.bbk.es

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk[®]